



Charles Dickens Oliver Twist

irakurtzeko ariketak

Koaderno honen asmoa ikasleei *Oliver Twist* eleberriaren egokitzapen-lan hau irakurtzea erraztea da.

Horretarako, hasieran eta amaieran era orokorreko galderak dituzten fitxak daude; lanari, aldiari edo egileari buruzkoak dira, hain zuzen ere.

Gainerako fitxetan, liburuko kapitulu bakoitzaren edukiarekin lotuta dauden berariazko ariketak ageri dira. Ulermena, analisia eta adierazpena lantzen dira, batez ere, fitxa horietan.

IRAKURRI BAINO LEHEN: GALDERA OROKORRAK

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

- 1 Ezagutzen al duzu lan hau? Irakurrita baldin baduzu, laburtu argumentua. Irakurri baldin ez baduzu, zure ustez, zeri buruz hitz egiten digu?

- 2 *Oliver Twist* eleberri bat da. Gogoan a dituzu literatura-jenero horren ezaugarriak? Eleberri errealista da, gainera. Zer esan nahi du horrek?

IRAKURRI BAINO LEHEN: GALDERA OROKORRAK

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

3 Orain arte irakurri dituzun literatura-lanen artean, eman errealitatea islatzen dutenak eta irudimenez beterik daudenak. Nolako irakurgaiak dituzu gus-tukoen? Zergatik?

4 Zure ustez, oso modu desberdinean bizi al dira XIX. mendeko haurrak eta gaurkoak? Azaldu erantzuna.

5 Bilatu XIX. mendeko hiriei buruzko informazioa, eta deskribatu hiri horiek.

IRAKURRI AHALA: I. KAPITULUA

Oliver Twisten jaiotza eta haurtzaroa

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Laburbildu Oliver Twisten jaiotzaren kontakizuna.

2 Nolakoa zen hauren bizimodua Mann andrearen landetxean? Zer kritika egin zion Dickensek?

IRAKURRI AHALA: I. KAPITULUA
Oliver Twisten jaiotza eta haurtzaroa

Izen-abizenak:
Ikasturtea: Eguna:

3 Liburua hasi baino ez dugu egin, eta, Dickensek egiten zuen gizarte-kritikarekin batera, idazle horren beste ezaugarrietako bat ageri da: ironia, hau da ezkutuko burla. Bilatu horren adibideak, eta saia zaitetz zergatik eta zertarako erabiltzen zuen azaltzen.

4 Oliver Twist izena sinbolikoa da. Bilatu ingeles-hiztegian izen-abizen horiek osatzen dituzten hitzak, eta saia zaitetz pertsonaiarekin bat datorren esanahia aurkitzen.

Oliver: _____

Twist: _____

IRAKURRI AHALA: II. KAPITULUA

Oliverrek afari gehiago eskatu

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Oliverren izaeraren zer ezaugarri nabarmendu ditzakegu orain arte?

2 Janaria benetako obsesioa zen umezurtzen etxean egon behar zutenentzat. Nor izaten zen gose eta nor ez etxe hartan?

3 Zer gertatu zitzaion Oliverri jantokian?

IRAKURRI AHALA: III. KAPITULUA

Oliverren lehenengo lana

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Zer lan egiten zuten tximinia-garbitzaileek? Ba al dakizu zer esan nahi duen *kedar* hitzak?

2 Zergatik esaten da liburuan lanbide arriskutsua zela umeentzat? Zer beste lanbide proposatu zuten batzordeak Oliverrentzat?

3 Zer esaten da nagusiei buruz? Nolakoak ziren?

IRAKURRI AHALA: III. KAPITULUA

Oliverren lehenengo lana

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

4 Dickensek bere denborako eta, zoritxarrez, gaurko herrialde askotako gizarte-errealitaterik izugarrienetako bat salatu zuen: haurren lana. Zer iritzi duzu haurren lanari buruz?

IRAKURRI AHALA: III. KAPITULUA

Oliverren lehenengo lana

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

5 Oliver, ipuinetako beste pertsonaia batzuk bezala, umezurtza zen. «Oso txikia naiz, inork ere ez nau maite eta..., eta..., hain bakarrik nagoenez, jauna...» esan zion Oliverrek Bumble jaunari. Gogoratzen al duzu umezurtza den eta bertan behera utzitako beste pertsonaiaren bat?

6 Kapitulu honetan, Oliverren bizitzako garrantzi handiko gertaera baten lekuko gara. Zer gertatu zitzaion Noah Claypolekin?

IRAKURRI AHALA: III. KAPITULUA

Oliverren lehenengo lana

Izen-abizenak:
Ikasturtea: Eguna:

- 7 Noah Claypolek ematen zion tratua «jazarpen fisiko eta psikologikotzat» har daiteke osoan. Oliverren erantzuna bortitza izan zen. Aztertu egoera eta pentsatu: Zuzen erantzun zion Noah Claypole mutil baldarraren erasoari, ala beste modu batera erantzun behar izan zuen? Zer egingo zenuen zuk, Oliver izan bazina?

- 8 Gertaera horren aurrean, Bumble jauna Sowerberry andrearengana joan zen. Aurkitu horren hitzak 37. orrialdean, eta irakurri berriz. Zer esan nahi dute? Ados zaude?

9 Janaria ez ezik, gaixotasuna eta heriotza sarri ageri ziren Dickensen lanetan, eta aldi hartako gizarte-errealitatearekin lotuta zeuden. Bilatu Interneten Europako XIX. mendeko gaixotasunik ohikoenei buruzko informazioa: tifusa, elgorria eta kolera. Gero, azaldu nolakoak ziren gaixotasun horiek.

IRAKURRI AHALA: IV. KAPITULUA

Londresen beste bizimodu baten bila

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

- 1** Oliverrek beste bizimodu baten bila jo zuen Londresera. Landaren eta hiriaren arteko kontrakotasuna eztabaida-gai arrunta da bai eguneroko elkarrizketetan, bai literaturaren historian. Non bizi nahiko zenuke, landan ala hirian? Zergatik?

- 2** Oliverrek poltsikoan penny bat zuela hasi zuen bidea. Penny britainiar diru-sistemako txanponetako bat da. Jo gaurko britainiar diruei eta unitate bakoitzaren balioari buruzko informazio bila. Charles Dickens denborako balio bera al dute? Hau da XIX. mendeko bigarren erdialdean zuen balio bera?

IRAKURRI AHALA: IV. KAPITULUA
Londresen beste bizimodu baten bila

Izen-abizenak:
Ikasturtea: Eguna:

3 Astebetean ibili eta ibili ondoren, Oliver, goseak hilik eta nekatuta, etxe baten atarian eseri zen. Nor aurkitu zuen orduan?

4 *Kaletxakur Maltzur* ez ezik, eleberriko antagonista handia agertu zen kapitulu honetan, Fagin judua. Une honetan, erreparatu haren itxurari bakarrik. Nola deskribatu zuen narratzaileak? Ba al dakarkizu inor gogora?

5 Nor zen Fagin? Zertan ziharduen? Zer ezaugarri nabarmentzen ziren pertsonaia horren izaeran?

IRAKURRI AHALA: IV. KAPITULUA
Londresen beste bizimodu baten bila

Izen-abizenak:
Ikasturtea: Eguna:

- 6** Jack Dawkinsek zerabilen hizkera lagunarteko hizkera arruntaren lagina dela esan daiteke, jatorrizko hizkuntzan, behintzat. Adierazi horren ezaugarri batzuk, eta jarri adibideak.

IRAKURRI AHALA: IV. KAPITULUA
Londresen beste bizimodu baten bila

Izen-abizenak:
Ikasturtea: Eguna:

7 Faginen gordelekuan zegoela, zertaz jabetu zen Oliver goiz batean?

8 Kapitulu honetan, Nancy ere agertu zen; Charles Dickens aukera-aukerako emakumezko pertsonaia. Nolako itxura zuen?

9 Zertan ziharduen Nancyk? Zer aztarna ematen digu kapitulu honek?

IRAKURRI AHALA: V. KAPITULUA

Eskarmentu garestia

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Zer gertatu zitzaion Oliverri bere bi lagunekin “lehenengo lanegunean”? Kontatu labur zer gertatu zitzaion.

2 Dickensek aldi hartako polizien eta Ingalaterrako justizia-sistemaren ironiaz kutsatutako kritika egin zuen. Aztertu pasadizoa, eta adierazi zeri deritzozun gaizki.

IRAKURRI AHALA: V. KAPITULUA

Eskarmentu garestia

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

3 Zure ustez, ongi jokutzen al du idazleak gertaera horiek salatzean, ala, zure ustez, literaturak ez du halako arloetan sartu behar, eta nahikoa izango luke irakurleari denbora ematen lagunduz gero?

4 Zer gertatu zitzaion Oliverri epaiketaren ondoren?

IRAKURRI AHALA: VI. KAPITULUA

Apustua

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

- 1** Fagin juduari eta Sikes jaunari Oliver harrapatu zutela esan zieten. Nor bidali zuten, non zegoen jakiteko?

- 2** Denboratxo bat igarota, zer agindu eman zion Brownlow jaunak Oliverri? Zer gertatu zitzaion Oliverri orduan?

- 3** Kapitulu honetan, gizakien portaerari buruzko teoria zahar bat azter daiteke: gizakia ona da izatez, baina usteldu egiten da gizartearen eraginez. Zer uste duzu? Azaldu erantzuna, pertsonaiei buruzko testuko adibideekin.

IRAKURRI AHALA: VI. KAPITULUA

Apustua

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

- 4** Eleberri modernoaren literatura-teknika bat ere azter dezakegu: kontrapuntua. Hainbat tokitan era berean gertatzen dena kontatzean oinarritzen da. Adierazi teknika horren erabileraren testuko adibideak.

IRAKURRI AHALA: VII. KAPITULUA

Iragana berriro

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

- 1** Oliverren erretratua osatzen jarraituko dugu. Itxuraz, elkarren kontrako bi ezaugarri ageri dira kapitulu honetan. Zein dira ezaugarri horiek?

- 2** Nola portatu zen Nancy pasadizo honetan? Zergatik aldatu zen Nancy?

- 3** Erreparatu orain garrantzi handiko beste pertsonaia bati, Bumble jaunari. Behar adina ezaugarri fisiko eta psikiko ditugu horren erretratua egiteko. Zein dira horren ezaugarri nabarmenenak?

IRAKURRI AHALA: VII. KAPITULUA

Iragana berriro

Izen-abizenak:
Ikasturtea: Eguna:

4 Nola jakin zuen Bumble jaunak Oliver Twist bizirik zegoela?

5 Egunkariak informazio-iturri ona ziren. Bilatu Interneten Ingalaterran XIX. mendean egunkariak agertzeari eta horien zabalkundeari buruzko informazioa.

IRAKURRI AHALA: VIII. KAPITULUA

Lapurreta

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Nondik ateratzen zituen Faginek lapurtxoak?

2 Zergatik zuen nahiago Oliver Faginek?

3 Deskribatu Londres hiria, kontuan hartuta orain arte irakurri duzuna.

IRAKURRI AHALA: IX. KAPITULUA

Karitatea zer den

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Bumble jaunaren eta Corney andrearen arteko maitasun-eszena barregarria da; baina tragikoa ere bada, era berean, tratatu zuten gaia zela eta. Zein dira pertsonaia horien ezaugarriak?

2 Zer «arau» aipatu zuen Bumble jaunak?

IRAKURRI AHALA: IX. KAPITULUA

Karitatea zer den

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

3 Zer sekretu kontatu zion Sally andre zaharrak Corney andreari?

4 Emanalditan argitaratzen zituzten eleberrietako kapitulu guztiek intentsitate edo klimax handiko eszenak izaten zituzten amaieran; ondorioz, irakurleak harrapatuta geratzen ziren, egoera hori hurrengo emanaldian ebatzi arte. Edizio honetako kapituluak ez datoz bat egunkariak XIX. mendean argitaratu zituen emanaldiekin. Zure ustez, zein da kapitulu honetako gorengo unea?

IRAKURRI AHALA: X. KAPITULUA

Beste etxe bat Oliverrentzat

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Zer gertatu zitzaion Oliverri kapitulu honetan?

2 Badakizu Londresko polizien etxe nagusia Bow Street izeneko kalean zegoela. Bilatu Interneten Bow Street Runners izenekoei buruzko informazioa, eta idatzi hamar bat lerroko laburpena.

IRAKURRI AHALA: XI. KAPITULUA

Kapadun gizona

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

- 1** Kontuan hartuta eleberriak eskaintzen dizkizun datuak, azaldu nola ematen zuen denbora XIX. mendeko jendeak. Alde handia dago gaurko denbora-pasen eta ordukoaren artean? Azaldu erantzuna.

- 2** Oliver zoriontsu bizi zen Rose andereñoarekin eta horren izebarekin. Nola egin zuten topo Oliverrek eta kapadun gizonak?

IRAKURRI AHALA: XI. KAPITULUA

Kapadun gizona

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

3 Kapitulu honetan, postei buruz hitz egiten da. Azaldu zer ziren eta nola funtzionatzen zuten.

4 Oliverrek norbait ikusi zuen. Nor zen, Oliverren ustez?

IRAKURRI AHALA: XII. KAPITULUA
Ezinezko maitasuna

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Laburbildu kapitulu hau: sortzen zen arazoa eta pertsonaia bakoitzaren ikuspuntua.

IRAKURRI AHALA: XIII. KAPITULUA

Bahitexeko txartela

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Zer lortu nahi zuen Monksek Bumble senar-emazteengandik?

2 Deskribatu elkarrizketan parte hartu duen pertsonaia bakoitzaren jarrera.

Bumble andrearena:

Monksena:

Bumble jaunarena:

IRAKURRI AHALA: XIV. KAPITULUA

Elkarrizketa bitxia

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Zergatik joan zen Monks Fagin ikustera?

2 Nor zen, benetan, Monks? Zer adjektibo erabiliko zenuke pertsonaia hori deskribatzeko? Zer lortu nahi zuen Oliverrengandik?

3 Nola jakin zuen Nancyk gertatu zen guztia? Zer egin zuen, hori guztia jakin zuenean?

4 Nolakoa izan zen Roseren erantzuna, informazio hori jaso zuenean?

IRAKURRI AHALA: XV. KAPITULUA

Aspaldiko bi lagun berriro elkartu

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Zergatik ikusi nahi zuen Oliverrek Brownlow jauna?

2 Azaldu zer pertsona bildu ziren Oliverren jatorria ikertzeko. Azaldu baita zer egin nahi zuten ere.

IRAKURRI AHALA: XVI. KAPITULUA

Hitza bete

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

- 1** Charley Batesek poliziek Jack Dawkins harrapatu zutela eta betiko erbestera-tuko zutela jakinarazi zionean, hauxe erantzun zuen Faginek: «... abokaturik onena... hartuko dugu...». Hala ere, ingelesez, abokatu hitzaren ordezt, *ileorde* hitza agertzen zen. Zergatik erabili zuen Faginek hitz hori?

- 2** Norekin elkartu zen Nancy Londresko zubian?

- 3** Sikes gaiztoak hizkera baldarra erabiltzen zuen. Adierazi zein diren kapitulu honetako hizkera horren ezaugarriak. Azaldu zer den *bulgarismo* edo arrunke-ria.

IRAKURRI AHALA: XVI. KAPITULUA
Hitza bete

Izen-abizenak:
Ikasturtea: Eguna:

4 Jo Newgateko Egutegiari buruzko informazio bila, eta osatu irakurgaiaren oinpean eskaintzen dizuguna.

IRAKURRI AHALA: XVII. KAPITULUA

Ondorio negargarriak

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Zergatik erail zuen Sikesek Nancy?

IRAKURRI AHALA: XVIII. KAPITULUA

Zoramenaren hobia

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Azaldu labur zer gertatu zitzaion Sikesi.

2 Ingalaterrako XIX. mendeko burgesia oso puritanaoa zen hezkuntzaren eta ohituren arloetan. Hala ere, ezkutuko zientzietan ere sinesten zuen. Zein da kapitulu honetako naturaz gairikiko osagaia?

IRAKURRI AHALA: XVIII. KAPITULUA
Zoramenaren hobia

Izen-abizenak:
Ikasturtea: Eguna:

3 Landan zehar ihes egiten ari zela, su bat itzaltzen lagundu zuen Sikesek. Jo informazio bila, eta azaldu zein ziren sua itzaltzeko erabiltzen ziren tresnak.

4 Jacob uhartea toki oso ezaguna zen Londresen Dickensen denboran. Jo informazio bila, eta idatzi zortzi bat lerroko testu bat uharte horri buruz.


IRAKURRI AHALA: XIX. KAPITULUA

Oliverren jatorria

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

- 1 Azkenean, bere gurasoak nor ziren jakin zuen Oliverrek. Horrez gainera, itxaroten ez zuen izeba aurkitu zuen. Osatu Oliverren familia-zuhaitza.



- 2 Zer ikasi zuen Oliverrek bere bizitzan?

- 3 Hartu kontuan liburuan ageri diren datuak, eta atera zenbat urte zituen Oliverrek, eta zenbat urte eman zituen bizitzako pasadizo latz horietan.

IRAKURRI AHALA: XX. KAPITULUA

Faginen zigorra

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Fagin juduaren delitu guztiak epaitu zituzten. Zer epai izan zuen Faginek, azkenean?

2 Nolakoa izan zen Faginen erreakzioa izango zuen amaieraren aurrean?

3 Oliverrek azkenean lortu zuen gizarte-egoera, bizitzan aurrera egiteko izan zuen borrokaren ala halabeharraren ondorio izan al zen? Egiantzekoa dela uste al duzu? Zergatik erabaki zuen Dickensek, orduan, horrela izatea?

4 Lanaren amaierara iritsi gara. Zer egitura du lanak? Seinalatu non dauden sarrera, garapena eta amaiera.

IRAKURRI AHALA: XX. KAPITULUA

Faginen zigorra

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

5 Zein da argumentuaren unerik gorena?

IRAKURRI AHALA: Amaiera

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Egizu komiki bat gehien atsegin izan duzun pasadizoari buruz. Ikasgelan eginenez gero, taldean presta dezakezue: batek marrazkiak egingo ditu, eta besteek testuak idatziko dituzte.

2 Lan honen gainean egin diren filmak ikusi eta gero, seinalatu liburuaren eta filmen artean zer antzekotasun eta zer desberdintasun dauden. Zein gustatu zaizu gehien, filma ala liburua? Zergatik?

IRAKURRI AHALA: Amaiera

Izen-abizenak:
Ikasturtea: Eguna:

3 *Oliver Twist* eleberria irakurri ondoren, honako gai hauetako bati buruzko solasaldia izan dezakegu ikasgelan. Irakasleak lagundurik, aukeratu honako gai hauetako bat, eta antolatu eztabaida ikasgelan:

- Haurren esplotazioa munduan.
- Haurren eskubideak.
- Haurrek jasaten dituzten tratu txarrak.
- Familia eta eskola haurren hezkuntzan.
- Sexu-indarkeria.
- Balioetan hezte gaurko munduan.
- Gizakien bertuteak eta akatsak. Gure gizarteko portaera-ereduak.
- GKEn zeregina munduan.

IRAKURRI ETA GERO

Izen-abizenak:

Ikasturtea: Eguna:

1 Zure ustez, zein izango litzateke Oliver Twistentzako lanbide egokia? Zergatik?

2 Kontuan hartuta Charles Dickensek zer helburutan idatzi zuen lan hau, laguntzen al du literaturak egileak deskribatzen duen mundua ulertzen, ala hobe al da historiako liburuak edo benetako biografiak irakurtzea?

IRAKURRI ETA GERO

Izen-abizenak:
Ikasturtea: Eguna:

3 Gustuko izango zenuen Dickensek deskribatzen dituen hirian eta jendearen artean bizitzea? Bai? Ez? Eman zeure arrazoiak. Oso desberdinak dira hiri hori eta liburua irakurtzen hasi baino lehen deskribatu zenuena?

4 Liburu bat amaitzen dugunean, liburu horren balorazioa egin behar dugu. Gustatu al zaizu? Zer gustatu zaizu gehien? Eta gutxien? Aholkatuko al zenioke lagun bati? Zergatik?

Ariketak eta soluzioak
Lourdes Íñiguez Barrena

Edizioa
Marga Fdez. Montijano

Talde teknikoa
Gema Melero